

June Pujana Palacin

F maila • 2 aipamena

June Pujana naiz, Beasaindarra. Bederatzi urte ditut eta La Salle ikastetxeko ikaslea naiz. Nire zaletasunen artean futbola, gimnasia erritmikoa eta korrika egitea daude. Bestalde asko gustatzen zait irakurtzea eta horren ondorioz ipuinak idaztea. Poz handiarekin hartu ditut sari hau eta idazten eta irakurtzen jarraitzeko gogoia eman dit benetan.



NOR NAIZ?

Urtarrilak 12, nire gelan nago aspertuta, leihotik begira. Elur malutak erortzen ari dira, negua, tristura. Hamalau urteko Berlingo neska bat naiz. Nire amak Berlingo ospitale famatu batean egiten du lan, mediku ospetsua omen da. Nire aita banku garrantzitsu bateko zuzendaria da. Beti lanpetuta. Alaba bakarra naiz.

Martina?

Zer?

Nahi al duzu larunbat goizean merkatal zentrora joan?

-Ummm..., bai ama.

Martinaren erantzuna ez zen oso ziurra izan, amarekin merkatal zentrora joatea ez baitzuen asko atsegin.

Larunbat goiza iritsi da, ama eta biok autoan sartu eta merkatal zentrorantz abiatu gara. Beti bezala bidean isilik, amak, bluetooth-a ipini eta mugikorraz hitz egiten, beti berdin.

Ni ordea, autoko leihoen begirada paisaiari jaramonik egin gabe.

Iritsi eta lehenik, arropa denda batera sartu gara, amari soineko beltz loredun bat gustatu zaio, motza, belaunak estali gabe. Amak dio, nire gorputzaren edertasuna nabarmentzen duela, nik berriz ez dut atsegin.

Azkenean, kostata eta amarekin ika-mika motz baina sakon bat eduki ondoren, saltzailearen laguntzaz galtza bakero batzuk erosi ditut, arrunt- arruntak.

Dendatik atera gara, bi minutu ez dira igaro eta amaren mugikorra dardarka, Maddlen da, berriro hitz egiten.

Ospitaleko- mediku laguna da, ez du seme alabarik, nire urtebete egunetan eta Gabonetan opariak ekartzen dizkit. Beti aurpegi gozo eta irribarretsuarekin begiratzen nau; uste dut, ezin dutela seme alabarik eduki.

Bitartean, ile-apaindegi baten aurrean geratu naiz begira.

Argazki batzuk ikusten ditut horman itsatsita, neska eta mutilen orrazkerak azaltzen dira argazkietan. Horietako bat begiko dut, ile motza duen neska baten orrazkera.

Amak elkarrizketa bukatzean atsegin dudan orrazkera erakutsi eta ilea horrela moztu ahal dudan galdetu diot. Amaren begiradak dena azaltzen zuen, ez dut erantzunik jaso.

Martinak ilehori luze, liraina eta leun- leuna du, begi orlegiak, udaberrian Hanburgoko zelaiak hartzen duten kolorea bezala. Gorputz gihartsua eta hanka luzeak.

Etixerako bidean Martina isil-isilik egon da, pentsakor. Ez du asko afaldu eta goiz oheratu da bere betiko liburua irakurri gabe, merkatal zentroaren nekea ote...

Hurrengo goizean ama eta aita igandero bezala lagun batzuekin eskiatzera eta otordu bat egitera joan dira. Bakarrik nago eta ile-apaindegiko argazkia ez dut burutik kentzen. Sukaldera joan, guraizeak hartu, ispilu aurrean jarri eta poliki-poliki ilea mozten hasi naiz, nire begietatik negar malkoak erortzen diren bitartean. Ez dakit beldur edo poztasunaren malkoak diren.

Etxeke atea irekitzen ari da , badatoz.

- Martina!!- Nola egin duzu hori!
- Joan zuzenean zure logelara, bazkaldu ondoren hitz egingo dugu.

Nire logelan, ispiluaren aurrean nago berriro, sentimendu kontraesan asko ditut buruan. Ez ditut mutilak atsegin baina mutilen orrazkera atsegin dut. Ez ditut gonak atsegin, baina nire aldagela soineko eta gonaz Beteta dago.

- Ez dut nire izena atsegin!!
- Zer gertatzen zait?
- NOR NAIZ ?
- Martina edo Martin.